Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

169 zenbakia
2016 **maiatza**

Prest!

BERBETAN: ASIER GARCIA BIDAIDEAK BILBAO BSR TALDEKO KAPITAINA

ERREPORTAJEA: SKATE PISTA BIZI-BIZI **BARKUA:** 2016KO MIKROIPUIN UZTA

TOKIKOM

163-164-165-166-167-168-

Prest! izan

Harpidetu urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal, 42
Deustua 48014

EDO HONA
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Harpidetza Txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

Babesleak

GOIKO ALDE Kultur Elkartea
BIHOTZ ALKI RKOL-KIROL TALDEA
DEVSTVKO IKASTOLA GVRASOAK
bekoerri kultur elkartea
berbaizu euskaraelkartea
PARE HAUTSI DITZAGUN KATEAK
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística
AMIKELDI DANTZA TALDEA
DEUSTUKO JAI BATZORDEA
intxixu kastola
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Bilbao
Donostiako Hirian Martxan
ernai Deustua
erraldoien ondalan konparsa
xut Kultur ekintzak Propuestas culturales
GILKITXARO
Doneperiaga Anizo Elkartea

169 zenbakia
2016ko maiatza

aurkibidea

Begoña Altuna eta Joserra Bilbao — **Iritzia** 4

Unai Tellitu — **Gureak kanpoan** 5

e **erreportajea** 6
Skate parkea bizi-bizi

Makarra Life Style (MLS) taldeko kideek PREST! aldizkarira jo dute Deustuko skate parkearen berri emateko.

Deustuko eskola — **Eskolak** 10

Sari-ehiztariak Deustuan — **Behin batean** 12

Ondalan erraldoien konpartsa — **Artikulua** 14

b **berbetan** 16
ASIER GARCIArekin

Bilbon ez ezik Bartzelonan, Toledon eta Getafen izan da saskibaloi jokalari gurpil-aulkian Asier Garcia. Aurtengo denboraldia amaitu ostean, Joko Olinpikoetan jokatzeko prestaketan ari da.

Deustuko Emakumeak eta auzoa, 1993 — **Irudiak berbetan** 21

ARTEA Ertibil saria 24

SAREKADA Klik eta klik

PINTXODROMOA Kabia elkartea

KULTUR TXOTX Izaskun Araluzea Itza eta Elorriko DBHko ikasleak

harkua bete herba

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
www.facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Begoña Altuna, Joserra Bilbao, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.850
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Begoña Altuna
Ordenagailuen euskara irakaslea

Talde-lana

Aisialdi taldeko dinamizatzaile bilerarako hasierako gogoeta baten bila ari nintzela, boluntario lanak egi(te)n dituztenek lana aurkitzeko erraztasun handiagoa dutela esaten duen artikulu bat aurkitu nuen. Nire tesi zuzendariari pasatuko diot artikulua; hiru urteren ostean, oraindik muturra okertzen du udalekutara noala esaten diodanean.

Taldean lan egiten trebeak omen gara boluntarioak. Ez dakit trebeak garen edo zailduak gauden. Gaur, bilera extraofizial kutsua hartu duen kafe bat hartzen genuen bitartean, nagusiei (adinez) entzuten ari izan naiz. Hori da gazteok batzuetan falta duguna. Eta harrituta entzun ditut euren ahoetatik aisialdi taldean askoz ere jende gazteagoak esan izan ditugunak. Agian nagusiek ere gazteak noizbehinka entzun behar izango lituzkete.

Bi testuinguruetan beharrizan bera, aldarri bera: elkarrekin gehiago hitz egin behar dugu. Ez da nahikoa norberarena, ez da nahikoa azpitaldearena: guztiok behar dugu esku artean dugunaren irudi globala. Eta gaur, nire saltsan sentitu naiz; ikerketa taldean sartzen azkenetakoa banaiz ere, talde-lana bideratzen badakit. Egia izango da artikuluak dioena.

Egia esan, gure talde-lana hobetzeko nire esku dagoena egiteko motibatuta nago; talde moduan helburu komunak lortzeak badu zerbait magikoa. Tesiarekin goraino banago ere, laster bidaliko dut elkartzeko mezua, irrikitan bainago noraino hel gaitezkeen ikusteko. Uste dut, azpian dagoen kitzika hau dela kontratatzaileek bilatzen dutena. Zuek ere ba al duzue?

Joserra Bilbao
Erretiratua

Bertsolariak eta txapelketak

Bertsolari-txapelketek duten eragina ukaezina da. Batetik, entzule eta zale berriak erakartzeko. Ez dago ikusterik, baina txapelketetan zenbat lagun batzen diren eta zenbat saio normaletan, ondorioa garbia delarik, txapelketetara baizik joaten ez den jende kopuru handia dago. Bestetik, bertsolari berri gazteak ezagutzera emateko apenas dagoen beste biderik eta honek esan gura du, bertsolarien erreleborako eta bertsolaritza biziberritzeko ezinbestekoak direla.

Baina... imajina ezazue Bizkaiko goi-mailako bertsolari bat. Orain urte bi, 2014an Bizkaiko Txapelketa jokatuko zuen eta iaz atsedena izango zuen, baina aurten berriro du Bizkaiko Txapelketa eta hori gutxi balitz, datorren urtean, 2017an Euskal Herrikoa izango du. Hau da, lau urtero hiru txapelketa jokatu beharrean dago eta hori oso nekagarria da. Nekagarria eta gogorra, txapelketak serio hartzen dituen bertsolari batentzat eta sines iezadazue bertsolari gehienek, denek ez esatearren, oso serio hartzen dituztela txapelketak.

Eta hau guztiau nora datorren galdezka egongo zarete batzuk. Bada erantzuna hauxe da: Fredi Paia gaur egungo txapeldunak ez duela parte hartuko aurten eta ziurrenik aurreko txapelduna izandako Arkaitz Estiballesek ere ez. Gogor egiten zaie eta gainera, beste batzuei bidea libre utzi gura die goi-mailara igotzeko. Berdin egin zuten orain urte batzuk Unai Irurriagak eta Igor Elortzak, eta askok txalotu egin genituen.

Ikusiko duzue hala ere, ze ondo pasako dugun aurtengo txapelketan. Fredi, Arkaitz, Unai eta Igorrekin saio normaletan gozatuko dugu.

Unai Tellitu

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Glasgow, Eskozia
Lanbidea: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako ikaslea

“Ezin da Glasgow ulertu bere jendea ezagutu barik”

Testua:
Lur Mallea

Zer dela eta erabaki zenuen Glasgowra joatea?
Batik bat hizkuntzarengatik, ingelera hobetzeko leku bat aukeratu nahi nuen eta Erresuma Batuko hiririk erakargarriena Glasgow zen. Gainera, Eskozia ezagutzeko irrikitan nengoen txikitatik.

Noiz joan zinen?
Urtarrilean etorri eta bost hilabete daramatzat Glasgown. Ekainaren 12ra arte egongo naiz bertan.

Zelan egokitu zara?
Lehenengo egunak zailak egiten dira, familia eta lagunak urrun dira eta. Hala ere, eskoziarrek harrera ona egin didate eta hemengo kulturara nahiko azkar egokitu naizela uste dut. Eskoziarrak, jende adeitsu, eskuzabal eta zintzoak dira, lehenengo egunetan adibidez, kalean galduta nengoen eta eskatu gabe, gazte bat etorri zitzaidan laguntza eskaintzen eta bizi nintzen lekura lagundu ninduen.

Zerk harritu zaitu gehien?
Orokorrean, bizitako esperientzia, ez nuen uste hain aberasgarria izango zenik. Horrez gain, Euskal Herrian paisaia desiragarriak ditugun arren, pertsona orori gomendatuko nioke auto bat alokatu eta egun batzuk Highlandsetako bizitza basatian galtzea.

Zelako antzekotasunak daude?
Herri edo kultura baten kidea izatearen sentimendua antzekoa da. Bestalde, eguraldia antzekoa da, hala ere, harrigarria badirudi ere, hemen euri gutxiago egiten du. Horrez gain, sozializatzeko orduan, euskaldunak eta eskoziarrak oso antzekoak gara, biok daukagu lagun eta familiarekin ondo pasatzeko eta edateko kultura eta, gainera, egiten dituzun lagunak betirako izaten dira.

Bada desberdintasunik?
Ordutegia, esaterako. Hemen 18:30ean afaltzen dute, eta hasieran egokitzea zaila egiten da. Euskal Herrian dugun janaria, topikoa badirudi ere, faltan botatzen da.

Zelako hiria da Glasgow?
Glasgow hiri industriala da, hemen denetarik aurki dezakezu. Hiri itsusia eta arriskutsua izatearen ospea eduki arren, ez da horrela. Denetarik eskaintzen duen hiria da, ikasteko, lan egiteko edo oporretan datorren edonorentzat. Glasgowk duen goiburuak dioenez, *People make Glasgow,* ezin da Glasgow ulertu bere jendea ezagutu barik.

Zelako bizi kalitatea dago bertan?
Orokorrean, hemengo jendeak bizi kalitate altua du, osasuna eta hezkuntza publikoa izanik. Unibertsitatea dohainik da eta gobernuak diru-laguntza kopuru altuak ematen dizkio ikasle eta herritarrei orokorrean. Horrez gain, prezioak nahiko altuak dira guretzat, hemengo soldatak ere altuak direla kontuan izanik. Izan ere, eskoziar ekonomia Europako garatuenetarikoa dela diote askok, petroliotik lortzen dituzten diru-sarrerak direla eta, batez ere. Ingurumenari dagokionez, Eskozia herrialde ‘berdetzat’ har genezake, birziklapena serio samar hartzen baitute, eta eskoziarrek duten ondarea oso ondo zaindua dute (naturala, historikoa, eta abar).

Parranda asko egiten al duzu? Eramusi buruzko mitoa (parranda asko eta ikasi gutxi) egia al da?
Jai-giro itzela dauka atzerritik datozen ikasleentzat, beti dago zerbait egiteko eta beti dago planen bat nahiz eta ez bilatu. Horrek ez du esan nahi lanik egin behar ez denik, noski. Egia da, hala ere, ezagutzen duzun jendea, bizitako abenturak eta tokiko beste herritar bat zarela sentitzeak Erasmus esperientzia ahaztezina bihurtzen dute.

Zer duzu faltan?
Eguneroko bizitzako jendea, eta batik bat, dugun gastronomia.

Zer egingo duzu itzultzean
Oraindik ez daukat oso argi zer egin. Glasgown master bat egitea gustatuko litzaidake, edota atzerrian praktika batzuk egitea.

SKATE PARKEA BIZI-BIZI

Makarra Life Style (MLS) taldeko kideek PREST! aldizkarira jo dute Deustuko skate parkearen berri emateko.

Testua: Lur Mallea **Argazkiak:** PREST!

Deustuko 'Tigrearen' pareko skate parkea, Botikazarren, urteetan erreferentzia izan da askorentzat. "Bilboko onena" izan da Deustuko Makarra Life Style (MLS) taldeko kideen esanetan. Bertara hurbiltzen ziren, "duela hamar urte", txapelketak ikustera ume mokoak zirenean. Aimarrek, Luisek eta Mariok gogoan dute Chet Thomas eta Tony Hawk bezalako skaterrak bertatik bertara patinatzen ikusi izana. Europan ez ezik nazioarte mailako punta-puntako skaterrak. Denborarekin, inguruan egin den obragatik, leku aldaketagatik eta utzikeriagatik "abandonatuta" egotera pasa da skate parkea.

Izan ere, "buelta asko" eman ditu Deustuko skate parkeak, eta "horregatik gaude zorabiatuta", dio Aimarrek. 'Tigrearen' paretik kendu zituen pistak Udalak, duela sei-zazpi urte, Euskalduna zubi ondoko errotondaren albo batera eramateko. Azken hiru urteetan apenas izan du zaintzarik eta, ondorioz, azpiegitura asko hondatu da. Bere patua "desagertzea" dela uste dute Makarra Life Styleko kideek. "Betidanik esan digute hori, eta guk geuk ere ikusten dugu hondora doala". Bilboko Udalaren arabera skate pista mantendu egingo da "lursail hori garatzen ez den bitartean", eta "une egokian, berriro ere ebaluatuko da" bere etorkizuna.

Egun, errepideak inguratuta dago skate parkea, "isleta baten erdian". Eremu horretan ezer gutxi dago. Gertu zuten iturria ere, "beharrezko duguna", kendu dute. Botikazar parkean dagoen iturrira joan-etorriak eginez moldatzen dira. Hortaz, ez iturririk "ez arbolarik, ez itzalik, ez babesik, ez komunik".

IMQren klinika, hurbilen duten eraikina, “ez da arazoa”. Ez diete gaixoei enbarazurik egiten klinika “insonorizatuta baitago”. Arazoa, besteak beste, euria denean izaten dute estalitako leku egoki faltagatik. “Ez dugu nora jo”, Euskalduna zubi azpian dagoen patinatzeko pista erabiltzeko aukera “mugatuta” dutelako. Horregatik diote ez dela “guretzako lekua”.

“Txikitatik” eduki dute Deustun skate parkea. Hori dela eta, lotura estua dute parkearekin Aimar, Luis, Mario, Jon, Gorka, Dani eta gainerako MLSko kideek. Gehienek arrapala txikian ikasi dute. “Hemen hartu ditugu sekulako kolpeak, hemen bizi izan gara, ia-ia lo ere egin dugu hemen”, aipatzen du Aimarrek. “Arratsaldero” elkartu izan dira, astean bost egunez, azken hiru urtetan skate parkearen baldintzak okertu diren arte. Ondorioa zuzena izan da. Jendeak Deustuko skate parkea erabiltzeari utzi zion. Gainbehera zegoen skate espiritua indartu asmoz, “parkea hilik zegoen baina gure espiritua ez”, 2012an Makarra Life Style (MLS) taldea sortu zuten 30 bat lagunek “giro ona, dibertsioa eta errespetua” leloarekin. “Burugogorrak” direlako, pistek zeuzkaten matxura batzuk eurek konpontzea erabaki zuten, eta arrapalak margotzea: “Bizitza emateko eta ondo pasatzeko. Gainera, ez da diru asko behar horretarako; uste baino merkeagoa da”.

Konponketa gabe, “hiltzen utzi dituzte arrapalak”. Nonahi izan dira zuloak, aske eta desorekatuta xaflak, bistan burdinak, kolokan barandak, apurtuta soldadurak... Larrutik ordaindu dute skaterrek pistaren egoera. Sergiok, esaterako, lepauztaia apurtu du eta Aimarrek orkatila. Istripuak izan dira, bai, eta izan daitezke gehiago ere. Izan ere, arrapala handiak, umeek txirrista bezala erabiltzen dutenak, burdinetako bat solte dauka, eta “prakak eta praka ez dena urratzen ditu”. Pista inguruko zorua berriz lakarra da, “paper-latza”, eta jausiz gero, “hanka erdia bertan utz dezakezu”. Konparaketa egitearren, “kristalezko futbol zelai batean jolastearen parekoa da”.

Utzikeriarekin gogaituta, Aimarrek Bilboko Udalera eta Bidarte auzo etxera idaztea eta deitzea erabaki zuen skate parkearen egoeraren eta arriskuen berri emanez. Mezuari erantzunez, joan den apirilean Udalak bi egunez beharginak bidali zituen konponketak egitera. Konponketa “txikiak”, eta gainera “lardaskeriak egin dituzte, ez dakitelako arrapala bat zelan konpondu”. Beharginak skate arloan adituak ez direla jakitun, MLSko kideek zer eta zelan konpondu esan diete. Horretarako matxurak identifikatu dituzte

“Pistek zeuzkaten matxura batzuk eurek konpontzea erabaki zuten, eta arrapalak margotzea”

CARROCER

"adi" mezua idatziz eta ondoan begi baten irudia margoztuz. Konponketa txikien ostean, xafla batzuk aske eta desorekatuta jarraitzen dute, eta hortaz "saihestu beharrekoak dira". MLSko kideen poztasuna erdizkakoa da. "Itxuraz, konponketak egin dituzte, baina skate parkea ez dago ondo; lanak ez daude amaituta. Batik bat, gugana jo ez dutelako, eta gurekin hitz egin ez dutelako".

Berritze-lan txikiek skaterrak Deustura itzultzeko balio izan du. Apiriletik 30 laguneko taldea astean lauzpabost bider elkartzen da. Eta skaterrak ikustean, umeak eta helduak kuxkuxean hurbiltzen dira. Bertakoak zein turistak dira begira-begira geratzen direnak eta argazkiak egiten dizkietenak. Skatea "erakargarria" delako. "Martxan zihoan auto batetik ere egin dizkigute argazkiak", gogoan du Sergiok. Argazki kamera berria frogatzera hurreratzen direnak ere badira. Beraz, skaterako azpiegitura txukun batek Deustuko eta Bilboko skaterren beharrizanari erantzungo lioke eta, era berean, turistentzat "pizgarria" izan liteke. Horretarako, baina, skatean "sinetsi" beharra dago. Sinetsi eta "skate eszena sustatu".

Bilboko eta bestelako skate parkeak

Ez pentsa Bilboko skate parkeak Deustukoa baino hobeto daudenik. Olabeagakoa "oso txarto dago", eta ez da bertara "inor joaten". Iralakoak 15 urte daramatza "utzita", eta "zatika eraman dute". Txurdinaga eta Etxebarria parketakoak zaharkituta daude, 90eko hamarkadakoak dira, eta ez dira behar bezala zaindu. "Inbertitutako diru urria skate parke guztietan adabakiak jartzeko erabili du Udalak".

Beste muturrean daude Mungia, Basozelai (Basauri), Galdakao edota Gasteiz. Eta zer esanik ez, Madril eta Bartzelona. Herri eta hiri horietan skatearen alde egin den apustua da Bilbok falta duena. Besteak beste, ezer egin baino lehen "tokian tokiko skaterrei galdetu dietelako" eta, zerbait egiterakoan, Daniel Yabar bezalako skate aditu batek parte hartu duelako.

MLSko kideen esanetan, Mungian eta Basozelain "kristoren" inbertsioa egin dute eta Galdakaon "ideia bikaina" izan dute hutsik geratu zen lantegi batean skate parke bat muntatuta, "noiznahi erabiltzeko".

Madril eta Bartzelonako esperientziak ere gustuko dituzte. "Skater batzuk lehiaketara aurkeztu dute euren ideia eta Udalaren eskutik erabiltzen ez den lursail bat jaso dute bertan eurek, euren kabuz, skate parkea muntatzeko". Bilbo aldera ekar daitekeen ideia iruditzen zaie hau.

"Skaterrak ikustean, umeak eta helduak kuxkuxean hurbiltzen dira"

Ez zaie ideirik falta MLS taldekideei. Proposamen-zerrenda luzea dute: zementuzko egiturak, "finkoak", eta arrapala txikiagoak, "umeentzat", dira aipatzen dituzten lehenak. Daniel Yabar aditua ere nahiko lukete ondoan izan. Deustun bertan izan zuten lehenaldia berreskuratu bitartean, egun ametsa dena, erronka eskuragarriak dituzte buruan. "Skatea sustatzea", nagusia. Horretarako, Skate Eguna eta musika kontzertu batzuk antolatzea pentsatu dute.

Zailtasunei aurre egitea egokitu zaie Deustun skate belaunaldi gazteei: "Ez dugu inoiz ezer lortu", diote, "lagunak bakarrik".

makarrapalace@gmail.com

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE · RENAULT WORLD CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

EUSKARA DA EUSKALDUN EGITEN GAITUENA

Urtero bezala aurten ere Euskal Astea ospatu dugu Deustuko eskolan. Maiatzaren 4tik 6ra egin dira emanaldiak, aurretiaz ordu asko eman ostean prestakuntza lanetan.

Testua eta argazkiak:
Deustuko eskola

Ahalegin handiz ikasle eta irakasleok ekintza ezberdinak prestatu ditugu: abestiak, antzerkiak, bertso antzeztuak, bertso kantaldia... Horiek guztiak beste ikaskideei eskaintzeko eta elkarrekin disfrutatzeko. Familientzat ere egun bereziak izaten dira eta irrikitan egoten dira prestatutako saioak ikusteko. Eskolako antzokitxoan egiten dira ekitaldiak.

Aurten Gorputz Hezkuntzako irakasleak prestatuta, eta beste guztien laguntzarekin ginkana bat antolatu da, eta arrakasta handia lortu du adin guztietako ikasleen aldetik. Euskal asteari hasiera berezi bat emateko ikasle nagusienak dantzaldi bat prestatu zuten, eta goizeko sarrerako orduan guraso guztien aurrean ekitaldi polita egin zuten.

Horretaz aparte gurekin egon dira, besteak beste, Eriz magoa. Goi zikloko ikasleek gustura hartu dute parte bere saioan eta magiaren munduan pozik ibili dira.

Izar eta Zenaida Euskadi-Cubak eta Eidabek elkarlanean ekoitzitako antzezlanaren gai nagusia elkartasuna da. Izar eta Zenaida bi neskato dira, bata euskalduna da eta bestea kubatarra. Mundua suntsitzen ari denean elkar ezagutuko dute). 2. 3. 4. mailako ikasleak Izar eta Zenaidarekin arratsalde eder bat pasatu dute.

Haur Hezkuntza eta lehen mailako ikasleak *Kondaira baten truke* antzezlana ikusteko aukera paregabea izan zuten. Bertan, naturaren festa ospatzen dute iratxoek.

Esan beharrik ez dago, hizkuntzaren erabilera hobetzeko lanetan jarraitzen dugula atsedenik gabe, -denok- ikasle, guraso eta irakasle. Ondino lan handia dugu aurretik Deustun euskaraz bizitzeko.

Deustuko eskolan orain arte bezala "Euskara da euskaldun egiten gaituena" leloa aintzat hartuta lanean jarraitzen dugu.



ARTEBI
MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA
MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA
Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

SARI-EHIZTARIAK DEUSTUAN

Giza-ehiza Mendebaldeko pelikuletako kontua ematen du, baina gurean ere izan ziren legez kanpokoak atxilotzearren diru sariak. 1799ko araudi zorrotz batek herritarrak elkar salatzera eta atxilotzera sakatu zituen. Bandolerismoaren urrezko aroa hasi berria zen.

Testua: Hektor Ortega

Kapitalismoaren garapenak gizon-emakumeak baserritik aterarazten dituen heinean, emigrazioa edo industriara jotzea beste biderik ez da izaten. Baina askotan, lantegiek ezin dituzte irentsi iristen zaizkien langile guztiak; beste batzuetan pertsona horiek ez dira egokitzen bizimodu berriko diziplina zorrotzera. Eta horiek orduan erdiko bidetik jo izaten dute, eskale, arlote edo bidelapur eginda.

Prozesu hori munduko leku askotan gertatu da eta orrialde gogoangarrietan deskribatu zuen Karl Marxek orain dela 150 urte. Orduantxe amaitu zen hemen, Bizkaian, bidelapurren urrezko aroa. Lege Zaharraren krisialdian, kapitalismoa erabat garatzen hasi zen arte (1795-1850) herrialdea legez kanpokoz josita egon zen. Hain zen horrela ezen agintariak artegatu baitziren. Francisco Aranguren Sobrado kontsultorearen proposamena onartuta, 1799ko Batzar Nagusiek ordenantza kriminala indarrean jarri zuten.

Araudi hark batez ere bidelapurrak jazartzea zeukan helburu. Kondena latzak ezarri zituen lapurretak zigortzeko eta mikeleteen atala indartu zuen. Baina bazekarren aldean beste nobedade garrantzitsu bat: herritar batek lapurra harrapatuz gero, dirusaria jaso behar zuen. Eta ez zen nolanahiko saria: 220 erreal lapurreko. Hori bai, lapurra auzitegiek kondenatu behar zuten; absolbituz gero, ez zegoen saririk. Horrela zabaldu zen giza-ehiza gurean. Ez zen heldu *western* pelikuletan sarritan ageri den *bounty-hunter* edo sari-ehiztariaren errealitatera, baina eskema berdina zen: herritarrak legez kanpokoa harrapatu eta legearen eskuetan utzi behar zuen gero diru hura jasotzeko.

Herritarrek elkar salatzea ez ezik, elkar atxilotzea ere sustatu zuenean, Bizkaiko eliteak argi eta garbi laga zuen problema larria zeukala esku artean. Muturreko neurriekin baretu nahi zituen Lege Zaharreko krisialdiak eragindako barne tentsio latzak. Bandolerismoa, Eric Hobsbawmek erakutsi zuen bezala, protesta sozialaren erakusgarria izan daiteke. Eta Bizkaian eta, oro har, Hego Euskal Herrian, gizarte kontraesanak lehertzekotan zeuden. Lapurren urrezko aro horretan matxinada bat (1804) eta kutsu sozial nabarmena hartu zuten hiru gerra gertatu ziren (frantsestea, 1822-23 eta lehenengo karlistada). Gatazka soziala tiroka garbitu zen gurean.

Sarien atala sarritan gauzatu zen. Esate baterako, Deustuko Jose Urrutikoetxeak Jose Galdos atxilotu zuenean. Egiari zor, birritan hartu zuen preso. Galdos markinarra 1801ean auzipetu zuten zaldi lapurretak “eta beste gehiegikeria batzuk” egin izana leporatuta. Orduan atxilotu bide zuen Urrutikoetxeak lehenengoz, mikeletea zela. Beraz, bere zeregina bete besterik ez zuen egin. Kasu horietan ezin zuten dirusaririk eskatu. Sententzia gogorra ezarri zioten Galdosi: sei urtez Afrikako espetxe batean -sasoi hartan, Ceuta edo Melilla-. Kontua da Afrikarako bidean Malagan geldiarazi zituztela presoak, baita obra publiko batzuetan beharrean jarri ere. Eta Galdosek ihes egiteko aprobetxatu zuen. 1802an jakin zuten Bizkaiko agintariek atzera libre zebilela.

1804ko maiatzak 10 zeukan Jose Urrutikoetxeak Galdos Zorrotzan harrapatu zue-

Tom Robertsen margo honek Australian egindako lapurreta islatzen du (1895)

nean. Orduan herritar hutsa zen Urrutikoetxea, mikeleteetatik irtenda. Ezagutu egin zuen markinarra eta berriz ere atxilotu eta Bizkaiko Jaurerriko espetxera eraman zuen, Bilbora. Handik gutxira, saria jasotzeko eskabidea aurkeztu zuen. Frogantza txostena egin eta 220 errealak ordaintzeko agindua eman zuten ahaldun nagusiek. Galdos atzera jarri zuten Afrikarako bidean.

1851ra arte

Horrelako eskabide asko egin zituzten araudiaren atal horrek indarrean iraun zuen bitartean, 1851ra arte alegia. Adibidez, 1824an Ignazio Oronoz atxilotu zuten Deustuan. Lau gizonek egin zuten, Begoñako batek, Bilboko batek eta deustuar bik, Jose Maria Zarragak eta Pedro Agirrek. Bakoitzari 220 erreal ordaindu zizkieten. Oronozi urte biko espetxealdia ezarri zioten Ferrolen (Galizian). Nahikoa garesti atera zitzaien Bizkaiko erakundeei atxiloketa hura.

Baina, ezelango zalantza barik, negoziorik onena gizon bi -edo gehiago- batera atxilotzea zen. 1825eko irailaren 3an Juan Jose Begoña deustuarrak eta Erandioko hiru semek Torre anaiak atxilotu zituzten Berrizko harrobian, Deustutik hur baina Sondikako lurretan. Atanasio eta Benito Torre zigortuta zeuden, baita haien ama Maria Antonio Gortazar ere. Ez zen kontu larria izango, Atanasio Torreri Donostian sei hilabetez herri-lanetan jarduteko zigorra ezarri zioten eta. Juan Jose Begoñarentzat eta haren kideentzat, ostera, negozio bikaina, 440 erreal jaso baitzituzten. Baserri batzuek ez zuten errenta hori ematen urtean, egin kontu.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



69 ERRALDOI BUELTA-BUELTAKA

Ondalan erraldoien konpartsak 20 urte bete ditu eta bi hamarkadako ibilbidea ospatzeko ekainaren 4an Bizkaian inoiz izan den erraldoi bilkurarik handiena antolatu du.

Testua:
PREST!

Guztira, Euskal Herriko 69 erraldoi elkartuko dira Deustun lehenik eta San Inazion gero ekainaren 4an. Bizkaian inoiz izan den erraldoi topaketa handiena antolatu du Ondalan konpartsak bere 20. urteurrena ospatzeko. Hainbeste erraldoi izaki, bi zutabetan banatzea erabaki dute.

Goiztiarrenak 10:30ean irtengo dira kalejiran Ondalan konpartsak Blas de Otero kaleko atzealdean duen egoitzatik. Arrasate, Irrintzi (Donostia), Kanbo, Txantrea eta Sanduzelaiko erraldoi taldeak izango dira ibilbide luzeena egingo dutenak. Deustun zehar hamaikatxo buelta emango dute. Iruña kalea, Madariaga, Heliodoro de la Torre, Blas de Otero, Iruña eta Agirre lehendakariaren etorbidetik pasa eta gero Pedro Astigarraga plazara iritsiko dira. Bertan elkartuko dira beste zutabearekin.

Ibarrekolandatik irtengo da bigarren zutabea 11:00etan. Ibilbide laburragoa egingo dute eta horregatik parte hartuko dute bertan ume eta gazteek dantzatuko dituzten erraldoi txikiek eta Santurtzi, Areatza, Bermeo, Getxo eta Basurtuko taldeek.

Pedro Astigarraga plazan banan-banan balsa dantzatuko dute eta ostean 69 erraldoiak elkarrekin Levante plazara joango dira kalejiran. Bertan multzoka dantzatuko dute. Berezia izango da amaiera. Balsa eta *Polonesa*-rekin, "apoteosikoa", Jabi Ortega Ondalaneko kidearen esanetan.

Lanak bukatuta 550 lagunek Elorrietan bazkalduko dute paratuko duten karpa batean. Indarrak berreskuratu eta gero ekingo diote dantzari Aiko taldearekin, baina erraldoi gabe. "Ordurako gordeta egongo dira". Levante plazan erromeriaz gain, erraldoi txikiak dantzatzeko tailerra eskainiko diote ikasi nahi duen orori, eta Ondalanen hainbat material ere salgai jarriko dute. Kamisetak, zapiak edota Ondalan markarekin merkaturatu duten garagardoa, esaterako. 21:30ak arte luzatuko dute ospakizunean parte hartzera "Euskal Herri osoa" gonbidatu du Ondalan konpartsak. Tartean egongo dira 150 bat konpartsakide: kide ohiak, gaur egunekoak, lagunak eta senideak. Baita hainbeste lekutan 20 urtetan egin dituzten lagun piloa ere".

Irunberritik datorkio Deustuko erraldoien taldeari Ondalan izena, eta iraultzearekin lotura du. "Lurrari buelta emateko erabiltzen dute Irunberrin 'ondalan' hitza", dio Jabik, "eta guk konpartsa sortzean orduko egoera irauli nahi genuen". Horretarako lan handia egin du Ondalanek, "jende askoren esfortzuarekin". Bai koreografiak irakasten bai talde berriak babesten. Bizkaia izan da taldearen "lan eremua" eta "urtero" jaietan huts egin ez dutelako Gorliz, Mungia eta Zornotzan bertakotzat dituzte. Duela 20 urteko erraldoien egoerak Bizkaian "ez dauka zerikusirik" egungoarekin. Azken bi hamarkadetan "irauli egin da, Jabi Ortegaren arabera. Onerako irauli ere, inoiz baino talde gehiago eta jarduera gehiago baitago.

artikulua
Euskal Jaia

12. EUSKAL JAIA ARANGOITIN

“Oso baikorra” da aurtengo Euskal Jaiaren balorazioa. Besteak beste, “alaitasun gehiago” egon delako auzoan eta “parte-hartze handiagoa” izan delako jardueretan. Esaterako, larunbateko bazkarian, 160 lagun elkartu ziren.

Arrakastatsuak izan dira hankapalu tailerra, Batuke Bulegoaren kalejira musikatua edota Ondalan eta Bihotz Alairen dantzak. Baita mintzodromoa ere. Aurten “iaz baino jende gehiago” egon dela azaldu diote PREST!-i antolatzaileek.

Larunbat arratsaldean euria gogor egin zuen arren, kantujirari esker, “guri esker”, atertu zen. Ondoren, Orkrestak gitarrak eta sugarrak atera zituen auzotarren artean parranda giroa zabalduz.

Igandean “urakanagatik” azoka ezin izan zen egin. Haize-boladak parkineko arbola bat apurtzera iritsi ziren. Baina herri kirolariak, txalapartariak eta bertsolariak (Mikel eta Abarkas) ez ziren kikildu eta saio bikaina eskaini zuten.

2017an, maiatzarekin bat, 13. Euskal Jaia iritsiko da. Antolatzaileak prestatzen hasita daude hurrengo edizioa. Ideia batzuk badituzte, baina sekretupean mantenduko dituzte “gauzatu bitartean”.

Testua: PREST!
Argazkiak: Arangoitiko Euskal Jaia

berbetan

ASIER GARCIArekin

Bidaideak Bilbao BSR taldeko kapitaina

Testua: Lur Mallea
Argazkiak: Iñigo Azkona/FEDDF

“2012tik Bidaideak Bilbao BSR

taldeak ez dio hazteari utzi”

Hirugarren postuan amaitu du Bidaideak Bilbao BSR taldeak Espainiako Ohorezko Mailan. Kapitain gisa, zelako balorazioa egin duzu?

Kalitate handia dago Ohorezko Mailan. Gure taldeak lau urte daramatza maila honetan. Aurretik taldea gora eta behera ibili da, egonkortasun gabe. Beraz, lau urtez mailari eustea eta, gainera, hirugarren postua lortzea ligan, gure aurrekontu eta jokalariekin, emaitza ona da. Aurreko denboraldian bosgarren geratu ginen. Gure emaitzarik onena duela hiru urte lortu genuen, ligako txapeldunordeak izan ginen, baina zorte kontua izan zen zeren berdinketa hirukoitza izan zen urte hartan.

Ligako hirugarren postuak berriro ere Europan lehiatzeko ateak zabalduko dizkizue hurrengo denboraldian.

Iazkoa izan zen gure lehen esperientzia Europan. Aurtengoa izan da bigarrena, eta finalera iritsi gara. Albaceteko taldearen aurka jokatu dugu Challenge Cupeko finala. Albaceteri ez zegokion finala jokatzea iazko Challenge Cupeko irabazlea izan baitzen. Ez zioten Europako kategoria horretan jokatzen utzi behar, goragoko mailan baizik. Baina tira! Albacetek hamabi jokalari ditu, hamar atzerritarrak, eta gurea bikoizten duen aurrekontua. Finala galdu egin genuen. Hurrengo urtean, bai, guk Europako bigarren txapelketan jokatuko dugu, Euroligue 2ko sailkapen fasean.

Itxaropen handia zegoen zuengan jarrita?

Zer eman dio Europak klubari?

Klubaren helburuetako bat gure burua eta gure lana ezagutzera ematea da eta, komunikabideek jarraipen handia egin zigutenez, oso pozik gaude zentzu horretan. Baina finala galtzeak asko izorratu gaitu, irabazi nahi baikenuen. Burumakur itzuli ginen. Galtzaileetan lehena da bigarren geratzen dena.

Zelako taldea da Bidaideak Bilbao BSR? Zein bereizgarri du?

Espainiako ligako lehen sei taldeen artean etxeko jokalari gehien duen taldea da gurea. Hamabi jokalari gara, zazpi bilbotarrak eta denak harrobitik irtendakoak. Bi atzerritar ditugu eta bi Estatuko jokalari. Azken hauek lau urte daramate gurekin eta klubak euren jarraipenaren aldeko apustua egin du, gustura egon daitezen.

Noiz egin du eztanda klubak?

Gurpil-aulkiko saskibaloian Bilboko taldea historikoa da. 25 urte ditu klubak. Ez da inoiz talde garrantzitsua izatera iritsi. Ez zen profesionala, eta ez zuen fitxatzen. Ni bertan hasi nintzenean, duela 13 urte, denak bertakoak ginen. Lehiatzen eta ondo pasatzen ahalegintzen ginen. Gero alde egin nuen eta Bartzelonan, Toledon eta Getafen jokatu nuen. 2012ko Joko Olinpikoen ostean itzuli nintzen taldea profesional egiteko apustua bazegoelako eta Bidaideak elkartea eta Saiatu fundazioa laguntzen hasi zirelako. Horri esker jokalari batzuk fitxatu ziren, eta Ohorezko Mai-

“Finala galtzeak asko izorratu gaitu”

berbetan

ASIER GARCIArekin

▷▷ SAKONEAN

Deustun egoitza duen Bidaideak elkarteak 25 urte bete ditu. Zelako lana egiten du?

Boluntarioen elkarte bezala sortu zen ez Bilbon ez Bizkaian existitzen ez zen zerbitzu sozial bati irtenbidea emateko. Zoro batzuk ekin zioten desgaitasuna zuten pertsonen garraioari euren auto eta furgonetekin. Etxera edota eguneko zentroetara eramateko. Lau laguneko hasierako taldeak egun 3.000 erabiltzaile ditu, 200 langile Bizkaia osoan.

Orduñako emakume batek salatu du trenean ezin duela igo bere aulkiarekin, eta bai geltokia bai trena egoitzeko eskatu du. Zer deritzozu?

2014an Aste Nagusian pregoia botatzea egokitu zitzaidanean esan nuen gauza bera erantzungo dizut. Hobetzeko gauzak badauden arren, oro har Bilbo nahiko hiri irisgarria da; zailtasunak ezagututa diot, zeren goi auzoetan, esaterako, irisgarritasun osoa izatea konplexua da. Garraio kontuetan, adibidez, metrorik onena du Bilbok, irisgarriena alde handiarekin. Bilboko autobus gehienak arrapadunak dira. Beti dago egiteko asko, ziur. Baina, egia da, Bilbok azken 15-20 urtetan irisgarritasun osorantz aurrepauso handiak eman ditu. Lan ona egiten ari dira.

Zer falta da egiteko?

Aldatu beharrekoa jendearen pentsamoldea da. Inklusiboa ez dena gizartea bera da. Aulkian mugitzen den jendeari koitadu gisa begiratzen jarraitzen dugu, 'zer gertatuko ote zaio' edota 'laguntza beharko du' pentsatzen dugu. Laguntzarik eskatzen ez badu ez eskaini laguntzarik zu bezain gai izan baitaiteke espailora igotzeko. Batzutan intentzio txarrik gabe eskaintzen da laguntza, baina beste batzutan iraingarria da behar ez duzunean laguntza eskaintzea norbaitek. Gizartean zabalduta dagoen pentsamolde hori aldatzeri ekin behar diogu. Japonian, Korean edota Bretainia Handian oso bestelakoa da, inork ez du begirada desberdinik aulkian doan pertsona batentzat, eta hemen bai, egunero ikusten dut. Eta hori ere bada Bilbo eta Bizkaia irisgarri egitea.

lari eutsi zitzaion. 2012tik taldeak ez dio hazteari utzi.

Erakunde publiko eta pribatuen babesa eta publikoarena iritsi zaizue?

Estatuko talde gehienak diru-laguntza publikoetatik bizi dira. Guk ere badugu erakunde publikoen laguntza, bai Bilboko Udalarena bai Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bidaideak dugu sponsor nagusi bezala, eta enpresen laguntza ere badugu. Ura ematen digute batzuk denboraldi osorako, logela bat hotel batean beste batzuk. Horri esker, urteko gastua murrizten dugu. Laguntza pribatu gabe ezinezkoa litzateke aurrera egitea. Etxeko zazpi-zortzi jokalari izatea oso filosofia polita da, baina benetan elitean egon nahi baduzu dirua eta aurrekontua behar duzu etxeko gabeziak estaltzen laguntzeko.

Diru gehiago behar duzue?

Diru publiko gehiago ezin dugu eskatu, nahikoa dugu, gu geu gai izan behar gara baliabideak lortzeko enpresa pribatuetatik. Guzti hori lortzeko taldea ikusgarri egin behar dugu, eta hori lortu dugu. Duela hilabete, etxeko azken partiduan, Final Fourrean sailkatzeko egunean, Txurdinagako

kiroldegia jendez beteta zegoen. Publiko fidela dugu. Peña bat dugu partidu guztietara jarraitzen diguna. Astero komunikabideetan aipatzen gaituzte; horri esker ikusgarriak gara Bilboko gizartearentzat, eta enpresa pribatuek gure alde egiten dute. Zentzu horretan taldea ondo bideratuta dago.

Zein da klubaren erronka nagusia?

Taldea Bilboko jokalariekin indartzeko ildoari jarraipena ematea. Gure etorkizuna eskolaren bitartez izango da bideragarria. Lehen taldeaz gain kirol eskola bat du klubak. Bi funtzio ditu eskolak. Batetik, gizarte funtzioa. Larunbat goizero desgaitasunen bat duten gazteen elkargunea da bai kirola egiteko bai ondo pasatzeko. Funtzio hori oso ondo betetzen dugu. Bestetik, harrobi funtzioa du eskolak. Eta gaur egun ez dago nahiko gazte eskolan etorkizunean goi mailan jokatzeko gaitasuna duena. Izan ere, desgaitasunen bat duen oro ez da gai saskibaloiko jokalari izateko. Bi urtero bat edo bi irteten dira. Orain, adibidez, Larrabetzuko Patxi daukagu, 17 urtekoa, etorkizun oparoarekin. Baina kluba urtero eskolako jokalari batekin gutxienez elikatu behar da, bestela bederatzi urte barru ez da bertako jokalaririk izango. Niretzat ez du zentzurik hamar urte barru dirua izateak baina klubean lau amerikar, bi kolonbiar, ingles eta aleman bat eta Mungiako gazte bat izateak. Ohorezko Mailari eutsi behar dio gure klubak eta, era berean, eskola indartu behar du eta etorkizuneko jokalariak bereganatu behar ditu.

Zelakoa izan da zure ibilbide pertsonala?

Bost urte neramatzan Suharrak taldean (CD Zuharrak taldeak Bilbao BSR izena hartu zuen) eta, taldea aurrera egin ezinda ikusi nuenean, 2006an Futbol Club Barcelonara alde egin nuen. Hiru urte eman nituen Bartzelonan, bi Toledoko taldean eta bat Getafekoan. 2012ko Joko Olinpikoen ostean erabaki nuen itzultzea.

Rioko Joko Olinpikoetarako entrenatzen ari zara.

Denboraldia amaituta, lehen hautaketan Espainiako selekziorako aukeratu gaituztenak lau hilabete ditugu entrenatzeko, kontzentratzeko, bidaiatzeko eta probatzeko. Behin betiko jokalarien zerrenda uztaileko lehen astean ezagutzera emango dute beranduenez; bertan egotea espero dut.

Lesioekin zortea izan duzu?

Egia esan, bai. Lesio larri bakarra iaz Europako txapelketan izan nuen. Baina ez zen larria izan. Sorbalda minduta izan nuen eta azken partiduan apurtu nuen. Irailean ebakuntza egin zidaten, eta ondo berreskuratu naiz. Abenduan hasi nintzen taldearekin jokatzen.

Ilusioa duzu bigarrenez parte hartzeko Joko Olinpikoetan?

1996tik Joko Olinpikoetan sailkatu gabe zegoen Espainia 2011n lortu zuen arte. Ikaragarria izan zen saikapena lortzea eta 2012an Londresen egotea. Ordezkatzen duzunagatik baino, norbere esfortzuagatik Joko Olinpikoetan parte hartzea kirol mailan dagoen lorpenik handiena da. Saria. Behin joatea itzela izan zen, bigarrenez joatea ametsa da.

"Desgaitasunen bat duen oro ez da gai saskibaloiko jokalari izateko"



HEZKUNTZA

3.mailako azterketari planto Deustualdeko ikastetxeetan

Deustu ikastetxeak izan ezik, Deustualdeko beste ikastetxe publiko guztiek Heziberrik ezartzen duen 3.mailako froga diagnostikoa egiteari uko egin diote. Gauzak horrela, Arangoiti, San Ignazio, Intxixu eta Deustuko ikastolako haurrek ez dute maiatzaren 2tik 27ra bitartean EAEko Hezkuntza Sailak proposatutako ebaluazio azterketa egin. Ez dira bakarrak, dagoeneko 180 ikastetxetik gora hartu dute erabaki bera. Besteak beste, hezkuntza komunitatearen babesik ez duen "LOMCEk inposatutako azterketa" dela salatu dute. Gainera, "antipedagogikoa eta atzerakoia "dela, ikaslea "zenbaki huts bilakatu nahi duela" eta "gure hezkuntza sistema ebaluatzeko ez duela balio" azpimarratu dute.

ISOLAMENDUA-GOSE GREBA

Itziar Moreno presoa isolamenduan eta gose greban

Fresnesko kartzela zuzendaritzak lekuz aldatuko dutela jakinarazi dio Itziar Moreno San Inazioko presoari. Ez diote lekua eta data zehaztu oraindik. Etxeratek jakinarazi du isolamendu egoeran jarraituko duela bitartean. Egoera salatzeko, Morenok gose greba hasi du maiatzaren 23an. Kartzela berean dagoen Ekhiñe Eizagirrek ere gose greba hasi du eta Iratxe Sorzabal janariari uko egiten hasi da. Itziar Moreno isolamendu egoeran dago maiatzaren 2az geroztik. Zuzendaritzak leporatu zion kartzelako bizi baldintzak hobetzeko mobilizazioen buru izatea. Morenoren egoera salatzeko, Fresnesko hainbat preso politikok gose greba mugagabea hasi zuten maiatzaren 10ean. Kalean ere protesta ugari egin dituzte Itziar Morenoren egoera salatzeko bai San Inazion bere auzoan bai Bilbon.

JAIAK

Ibarrekolandako jaiak

Maiatzaren 27tik ekainaren 5era ospatuko dituzte aurten Ibarrekolandako jaiak. Urtero auzoko jaiak "errealitate bihurtzeko esfortzu handia egiten dutelako", eskerrak eman dizkie Ibarrekolandako Jai Batzordeak "auzoko pertsona eta saltoki guztiei". Jaiek iraun bitartean artisautza eta bertako produktuen azoka egongo da. Aurtengoa VIII. edizioa du azokak. Egitaraua zein lekua alda dezake Jai Batzordeak "beharrezkoa baldin bada". Esaterako, euria egiten badu "jarduera batzuk Institutuan egingo dira".

Deustuko Gazte Eguna 2016

Aspaldi hasi ziren gazteak "eragileetan antolatzen, auzoa astintzen eta bakoitza bere txoko eta sektoretik ekarpenak egiten". Azken hilabeteetan konturatu dira indarrak batuz eta elkartuz "zerbait sortzeko aukera" badutela. Horrela heldu diote Deustuko Gazte Eguna antolatzeari, eta buru-belarri ekin diote "gazteria osoa batzeko asmoa duen egun izugarria antolatzeari". Parte hartuko duten eragile zein norbanakoak asko eta oso anitzak dira: Asanblada (DGA), Ernai, talde feminista (PARE), talde antirepresiboa (UBDG)... "Gure arteko aliantzak sortu eta indartzeko aukera paregabea dugu ekainaren 11n", diote. "Ikaragarria izan da eta izaten ari da elkarlanean aritzea, proiektu komun bat gauzatzeko batzen hastea. Deustuko Gazte Lokala eta auzoko kaleak jai giroz eta ilusioz beteko ditugu, jai herrikoi eredua inoiz baino ozenago aldarrikatuz". Egun osoko egitaraua antolatzen ari dira jada.

Urtea: 1993 urtea

Txema Luzuriaga

Emakumeak eta auzoa

Deustuko emakumeei buruzko argazki erakusketarekin jarraituz, 'Ez, ezetz da' izenburupan, hilabete honetan Erriberako andrazkoen erretratua dakart PREST! aldizkariko orriotara. Bertan ikus daitezke Pilar Rueda, Inmaculada Hernandez, Rosario Lamas, Begoña Bidarte, Julita Madariaga, Mari Carmen Burgoa eta Ana Mari Ruiz *Txapela*. Jubilatuen elkartearen egoitzan daudela kontatu ziguten gazte zirenean zelakoa zen Deustuibarra.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!



Zer deritzozu Deustuko merkataritza eta ostalaritza eskaintzari?

Jose Julio
Abando-Deustu

Frankiziak sartzen hasi dira eta sektore bereko autonomoak kaltetzen dituzte. Baina frankiziak bezero erakarle ere izan daitezke bestelako sektoreko merkatari txikientzat.

Esti
Ordizia-Deustu

Giro ona eta gazte piloa dago Ramon y Cajal kaleko tabernetan adibidez. Beranduago ixtea ere badute tabernek, baina traba da auzokideentzat.

Mikel
Deustu

Pilo bat saltoki eta taberna bizi dira Deustun. Gazteriak Agirre lehendakariaren etorbidetik gora dagoen zatia okupatu eta disfrutatzeko ahalmena bakarrik dauka.

Silvia
Santurtzi

Auzo giroa, herrikoia, dagoela iruditzen zait Deustun, konfidantzazkoa zentzu guztietan.

Ane
Oñati-Deustu

Oso eskaintza ona dago Deustun. Ni oso pozik bizi naiz bertan.

Jose Manuel
Abando-Deustu

Eskaintza eta zerbitzu handia eta anitza dago. Nik batik bat merkataritza txikia eta Internet erabiltzen ditut erosketak egiteko.



>> ARTEA

BIGARREN ERTIBIL SARIA ESKURATU DU IRANTZU YALDEBEREK

Irantzu Yaldebereren 'Gora Arriba horizontalean, 2016' izeneko argazki digitala saritu du Ertibil Bizkaia XXXIV. edizioko epaimahaiak.

Testua: LurMallea - **Argazkiak:** Rekalde aretoa

Hogei artistaren artelanak batzen ditu Ertibil sariketak eta lan saituen erakusketa ibiltariak –uztailaren 3ra arte Rekalde aretoan ikusgai–. Bizkaitarrak diren edo bertan lan egiten duten artista gazteen lanak ezagutzera emateko antolatzen du urtero Ertibil programa Bizkaiko Foru Aldundiak.

Aurtengo deialdira 109 artisten lanak aurkeztu dira, eta Daniel Castillejo, Zuhar Iruretagoiena, Abigail Lazcoz eta Ane Rodriguezek osatutako epaimahaiak Irantzu Yaldebere deustuarrari eman dio bigarren saria. Bera da hogeien artean gazteena. Sariak ezustean harrapatu du Irantzu. "Ez nuen espero", dio. Izan ere, Arte Ederretako karrera amaitu gabe du, gainerako sarituak Masterrean dauden bitartean, "edota Masterra amaituta beste batzuk". Lehen sarituak, adibidez, Amaia Gracia Azquetak, "nik baino 12 urte gehiago ditu eta artista ibilbidea eginda dauka".

Lehen hiru sarituek bat egin zutenean –Helena Goñi da hirugarrena–, hirurak emakumeak zirela konturatu ziren. "Hara, zein ondo" pentsatu zuten. "Bitxia" da, oraindik orain artista gazteen artean ere, Ertibil bezalako lehiaketa batean saritu nagusiak emakumeak izatea.

Hogei lanekin erakusketa ikusgai dago Rekalde aretoan. "Bilboko areto inportanteenean", Irantzuren arabera. Pozik dago Rekalde bezalako espazio batean bere lan bat "lehen aldiz" paratzeagatik.

Baina Ertibilek "izena" ez ezik ordainsaria ere ematen du. "Ona", gainera, "hurrengo proiektuetan lanean hasteko asko laguntzen duena", zergetan zati bat galtzen den arren.

Gora Arriba horizontalean

Bi argazkiz osatutako artelana da Irantzuaren *Gora Arriba horizontalean, 2016* izenekoa. "Proiektu handiago baten zati bat"; ariketa "sinple bat". Ariketarako "gatazka politikoetan agertzen diren izaera politikoa duten identitate keinuak" aukeratu ditu. Kontutan harturik, identitateak "espazio sozial publikoean eraikitzen direla", ohartu da kontestutik ateratzean eta indibidualizatzean, keinuaren "egitura estetikoa bakarrik" geratzen dela. Hortaz, kanpotik begiratuta ikusten den keinua hartu eta horizontalean jarri du, keinua nola desaktibatzen den ikusteko. "Zama politiko eta ideologioko guztiak galduta".

Epe laburrean, karrera eta Gradu amaierako lana amaitzea du helburutzat Irantzuk, arestian aipatutako proiektu handiagoa du hori. Eta horrekin batera, datorren urtera begira, Gasteizen bizitzen dagoela eta, Errekaleorren sormen espazio bat sortzea. PREST! aldizkariari aurreratu dionez, "Gasteizeko Udalak laguntza bat eman digu horretarako", eta ezin pozago dago.

http:// sarekada

YouTube - Medikuntzako graduazio ekitaldia 2016

Mediku onak euskaldunak dira
EHUren graduazio ekitaldiko hitzaldi gogoangarria

Medikuntzako graduko 2015-2016 ikasturteko 6. mailako ikasleek karreran euskara zein egoeratan dagoen salatu dute graduazio ekitaldian. “Gradu guztia euskaraz ikasteko ezintasuna eta egunerokotasunean dauzkagun oztopoak agerian utzi nahi izan ditugu”, adierazi dute. Diskurtsoaren hasieran eskerrak eman dizkiete iazko ikasturtean graduatu zirenei, haien hitzaldiari esker asko zabaldu baitzen euskarak Medikuntza ikasketetan bizi duen egoera.

2016KO MIKROIPUIN UZTA

Gontzal Fontecilla, Nerea Cubillo eta Malen Amenabar epaimahaikideek hautatu dituzte 2016ko mikroipuin uztaren artean lau onenak. Hauek, hain zuzen ere.

Testuak: Irati Antepara, Garoa Sarrionandia-Ibarra, Markel Sevilla eta Patricia Gutierrez-Crespo.
Argazkiak: Deustuko Euskararen Unibertsoa

AGIAN

Irati Antepara, Botikazar BHI

Ezagutzen ninduela ematen zuen.

Tren-geltokira sartzen nintzen bakoitzean han zegoen, eta begiratu besterik ez ninduen egiten, inolako disimulurik gabe.

Beste norbait izango balitz, deseroso sentiaraziko ninduke, baina berak ez. Haren begiradak zeozer ezberdina zuen. Goxoa, berezia, dibertigarria, bihurria…

Gure begiradak egunero gurutzatzen ziren, baina ez ginen bata besteari ezer esatera ausartzen.

Egunero tren-geltokian berarekin gurutzatzea espero nuen, eta, gutxienez, haren begirada lortu.

Ezagutzen ninduela ematen zuen, eta, agian, hala zen.

ETA DENA ARRAUTZA DOZENA BATEGATIK

Garoa Sarrionandia-Ibarra - Arangoiti LHI

Hemen nago, gela honetan, bakarrik, ertzainaren zain. Eta zergatik nagoen hemen? Arrautza dozena bategatik. Aitarekin joan naiz erosketak egitera. Erosketak bukatu ondoren, atea zeharkatu dugunean, alarmak jo du: «Pipi, pipi, pipi...!». Orduan, segurtasuneko gizona hurbildu zaigu eta erosi duguna ordainduta zegoen galdetu digu. Une horretan, eskuan nituen arrautzak ordaindu gabe zeudela konturatu naiz. Gure ondoan zegoen jende guztia guri begira ari zen. Ez nekien zer egin, ezkutatu edo segurtasuneko gizonari eman, edo...

«Ai ene!». Azkenean, gizona niregana hurbildu da eta arrautzak kendu dizkit. Denbora asko arrautzak eta ordenagailua begiratzen egon ondoren, altxatu egin da eta berarekin joateko agindu dit. Bitartean, aita dendako arduradunarekin geratu da hizketan. Nik ez nekien nora eramango ninduen; gero eta urduriago nengoen. Gela batera heldu gara. Gela oso txikia zen, mahai bat eta aulki bat besterik ez zeuden. Gizonak aulkian esertzeko eta ertzaina etorri arte hor geratzeko esan dit. Gizona joan denean arazo larri batean sartuta nengoela konturatu naiz. Zer egingo ote didate?

NI IZATETIK NI IZATERA

Markel Sevilla - Ibarrekolanda BHI

Atzo oheratu nintzenean neu nintzen, neure gorputza neurea zen, betikoa, baina gaur, esnatzean, konturatu naiz ez naizela ni. Nire gorputza, nire sentimenduak ez dira nireak, beste norbaitenak direla esango nuke, baina ez nago seguru. Ez nago seguru neu naizen ala ez, agian beti izan naiz horrelakoa. Egiaztatuko dut, neure buruari galdetuko diot neuk bakarrik dakidan galdera bat, baina ikusten dut horrek ez daukala zentzurik. Nola ez diot ondo erantzungo nik bakarrik dakidan galdera bati? Beste bide bat bilatu behar dut neu naizen ala ez jakiteko. Agian ispilu bat lortuko banu, ikusiko nuke. Beraz, bila hasten naiz, baina ez dut bilatzen aurkitzen dudana. Agian ohetik altxatzea lortuko banu zerbait ikusiko nuke. Izan ere, altxatzean ikusten dudan gauza bakarra izugarrizko altueran nagoela da. Ondoren mugitzea pentsatu dut, baina lortzen dudan gauza bakarra nire azpian dagoen dorrea mugitzea da. Ez dakit nola, baina oin bat mugitzen dudanean dorrea aurrera mugitzen denez, korrika hasten naiz. Baina bat-batean zerbaitek behaztopatzen nau eta dorrea jausten da. Zorionez, neu izanda esnatu naiz: neure hankak, ilea, belarriak, buztana…

IRATXOAREN TINTA MAGIKOA

Patricia Gutierrez-Crespo - San Inazio BHI

Bazen behin zuhaitz bat. Zuhaitz hartan, iratxo ikusezin bat zegoen. Zuhaitzetik hosto kimu bat ateratzen zen bakoitzean, iratxoa han egoten zen. Eta hostoak hazi bitartean, handi eta gogor bilakatzen ikusten zituen arte, haiei begira geratzen zen iratxoa, zaintzen eta babesten.

Ulergaitz samar, lotura berezi batek lotzen zuen iratxoa zuhaitzarekin. Horri esker, hostoei, naturaren mirariari, txundiduraz begiratzen zien. Eta hostoak erabat osatzen zirenean, aitaren harrotasunarekin eta amaren maitasunarekin agurtzen zituen, haietan tinta magikoz hitz boteretsu eta inspiratzaileak idatziz. Musu batez bezala. Ondoren, askatasuna ematen zien. Hostoz hosto, mila orriko liburu bat idazten bukatu zuen udaberriko azken egunean. Eta hitzok fruitu ugariren euskarri izan ziren: sagar goxoak, intxaur lehorrak, limoi garratzak… Inork ikusi gabe, lanik garrantzitsuena egiten zuten.

Uda igaro zen, bai eta udazkena heldu ere. Eta iratxoak ikasi zuen gauza guztiek amaierara jo ohi dutela, ezinbestez. Suspertzen ikusi zituen bezala, banan bana lehortzen eta jausten ikusi zituen bere hostoak, bizitzarenak. Malkoz malko, hostoz hosto. Apurtuta ikusi zuen bere bizitzaren historia, zati batzuk lurrean eta beste batzuk haizeak eramanda. Mundua tinta magikoz bustita.



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

HANBURGESA ANITZAK

Orixe kaleko 48. zenbakian dagoen Kabia elkartera jo dugu oraingoan ere. Pintxoez gain, ostiral eta asteburuetan hanburgesak, sandwitchak eta errazioak ematen dituzte hainbat saltsarekin.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: 5 minutu

Prezioa: 3,5€-4,5€

Berezitasuna: hanburgesari eransteko osagaien aukera zabala.

Kontu batzuk

Apiriletik ari dira Kabia elkartean hanburgesak, sandwitchak eta errazioak eskaintzen ostiral eta asteburuetan. Errazaio moduan, Idiazabal gazta edota natxoak gazta saltsarekin eta salta minarekin dasta daitezke. Jaun eta jabe hanburgesak diren arren, "oso goxoak eta erraldoiak" direlako. Oso hanburgesa desberdinak aurki daitezke Kabian, besteak beste, beganoentzako falafelez egina. Enkarguz bazkariak, afariak, luntxak eta catering zerbitzua ere eskaintzen dute.

KABIA elkarteko Peio, Txapi eta Miren

KABIA KULTUR ELKARTEA

Orixe 48, SAN INAZIO 94 447 93 35

facebook.com/kabia.kulturelkargunea

@KabiaSanInazio

Astegunetan 11:00-23:00

Asteburutan 12:00-00:00

Nola egin?

Txahalaren kalitatezko haragia erabiltzea funtsezkoa da hanburgesa goxo bat prestatzeko. Eta auzoko harakinari erosia bada are hobeto! Horixe da Kabia elkartekoen sekretua. Hori eta Peioren trebezia hanburgesa plantxan egiterakoan: egina bai, gordinik ez, ezta lehorregia ere. Neurrian!

Gustuko osagaiak eranstea oso gomendagarria da. Peiok, esaterako, kipula, tomatea, uraza, gazta, bakoia eta arrautza eransten dizkio.

OSAGAIAK

Hanburgesa haragia
Arrautza
Kipula
Bakoia
Gazta
Tomatea
Uraza
Ogia

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

IZASKUN ARALUZEA ITZA

Arte Ederretako ikaslea

MODERNOAK LONDRESERA!

Duela gutxi ikusi nuen La 2 katean eman zuten programa bat (*Urbanismo en tránsito*), bertan Zorrotzaurre proiektua "sormenaren irla" gisa aurkezten zuten. Harrigarria iruditu zitzaidan auzokide bat bera ere ez agertzea. Pablo Otaola, ZAWPeko kideak eta Eduardo Mugica arkitektua agertzen dira, auzo elkarteko inor ez da ageri. Zergatik?

2015eko ekainaren 20an *Erribera vs. Zorrozaurre?* izenpean, Pabellon 6 aretoan foro bat burutu zen. Hain ospetsu bilakatu den "sormen hiriaren" inguruan hitz egin zuten bertan. Foroan parte hartu zutenek egindako ariketa praktikoan azaleratutako komentario batek zeharo harrituta utzi ninduen: "*¡Los modernos a Londres! ¿Isla creativa? ¿Ciudad creativa? Donde estén el Gaztetxe del Casco, Kukutza y demás… Ya existía la ciudad creativa, carotas*".

Mezu hasarre horrek galdera asko sortu dizkit nire baitan. Zer dago hedabideetan hainbeste aldiz entzun dugun "isla creativa" delako horren atzean? Zergatik eraman da kultura eremu periferikoetara? Egun Erriberan dauden espazio kultural askok diru laguntzak jasotzen dituzte instituzioetatik. Mantenduko al dituzte instituzioek espazio hauek Master Plana gauzatzen denean? Bilbon, auzoetan auzokideentzako espazio kulturalen beharra egon denean, haien esku hartu eta beraien espazio propioak sortu dituzte. Kukutzaren adibidea argia da, ez al dira horrelako iniziatibak onuragarriak alegiazko "sormen hiri" horretarako? Zer interes politiko dago guzti honen atzean? Hiriaren marka bat sortzea? Kultura edo propaganda hutsa? Estrategia politikoa?

Honekin ez dut esan nahi instituzioek proiektu kultural edota sorkuntzakoak bultzatu behar ez dituztenik. Baina ez da kasualitatea horrelako espazioak periferian sortzea. Zer gertatuko da espazio hauekin Zorrotzaurren egotea haien interesekoa ez denean…

DBH-KO IKASLEAK

Elorri bertso-eskola

25. URTEURRENA

Deustualdeko euskal
giroaren arnas
Aitorren hizkuntz zaharrak
mingainean jolas
mende laurdena zelan
bete dozun geugaz
beste 25 urte
Berbaizu euskaraz

Prest! aldizkariari
eutsiaz indartsu
Txantxiku, Berbalagun
heldu zein gaztetxu
gure arrazoi eta
sostengu zara zu
Deustualdean beti
euskaraz Berbaizu

EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

LABORAL kutxa

Parte hartuko dute

Deustutik

Ondalan eta Euskal Herriko erraldoiak 1

Ondalan Txikia
Ondalan Nagusia
Arrasate Txikia
Arrasate Nagusia
Txantrea Txikia
Txantrea Nagusia
Irrintzi (Donostia)
Sukila (Kanbo)
Sanduzelai

Ibarrekolandatik

Txikienak eta Bizkaiko erraldoiak 2

Ondalan Txikiena
Arrasate Txikiena
Mamutxak (Deustua)
Mendi Alde (Santurtzi) Txikia
Mendi Alde Santurtzi Nagusia
Areatza
Beti Jai Alai (Basurtu)
Bermeo
Agurra (Getxo)

Ibilbideak

10.30 Iruña kalea (Metro Deusto)

10.30 Madariaga
10.45 Heliodoro Torre
11.00 Santxo Azpeitia
11.15 Blas de Otero
11.30 Bidarte
11.45 Salesianos
12.00 Sarriko
12.15 Astigarraga plaza

11.00 Ibarrekolanda (Benidorm kalea)

11.00 Orixe.
11.15 Erresidentzia.
11.30 Astigarraga plaza

12.45 Lehendakari Agirre
13.00 Lebante Plaza
14.00 Lehendakari Agirre
14.15 Elorrieta

Egitaraua

ekainaren 4a

10:00etan. Artisautza eta elikagaien **AZOKA** (Lebante plaza).
10:30etan. Erraldoien 1. zutabearen irteera Iruña kaletik.
11:00etan. Erraldoien 2. zutabearen irteera Benidorm kaletik.
11:30etan. **BALSAK** Pedro Astigarragaplazan.
13:15etan. Erraldoiak Lebante plazara iristen dira.
13:30etan. **BALSAK** Lebante Plazan.
14:15etan. Lebante Plazatik irteera.
15.30etan. Bazkaria
17:30etan. Erromeria Lebante plazazo Kioskoan.
18:00etan. Ume eta gazteentzako Erraldoien tailerrak.
20:30etan. Larraindantza

ekainaren 5a

11:30etan. Ume eta gazteentzako Erraldoien tailerrak